

47 ■ Wintertime jaialdia Bilbon



How I Became The Bomb, The Boxer Rebellion eta Editors ariko dira gaur Santana 27 aretoan.



54-55 ■ Irati tren ez ahazteko

Fernando Uhaldek Iruñea eta Zangoza lotzen zituen trenari buruzko hainbat dokumentu bildu ditu.

Elvis hil zen urtearen gizarte erretratua

1977ko zenbait euskal herritako gizartea islatu du Xabier Mendigurenek 'Elvis hil zen urtean' liburuan

ARANTZAZU MUÑOZA
Donostia

Elvis hil zen urteko, 1977ko, Euskal Herriko zenbait herritako errealtate sozialaren erretratua egin du Xabier Mendiguren Elizegik (Beasain, Gipuzkoa, 1964) *Elvis hil zen urtean* (Elkar) nobela motz edo ipuin luzean. Ametsen ugari eta esperientziaren urri zebiltzan Edu, Rober eta Etxe, nobela honetako protagonistak. Elvis hil zen urte hartan, hamabost urte bete zuten edo bete berriak zituztela. Neskak, bizikletak, musika, drogak, politika eta beste hainbat kontu azalduko dira hiru lagunen arteko solas eta bizitzetan.

«Liburu honek asko du soziologiari. Fikzioa azken batean aitzakia da garai hartaz hitz egiteko», aitortu du idazleak. Ez da inon aipatzen zein herritan gertatzen den istorioa, baina berea bezalako edozein herri zuen Mendiguren Elizegik buruan liburuaren egin zuten: «Euskaldunak eta erdaldunak kopuruz berdintsu izango diren herria eta industrializatua. Hori izan liteke Ordizia, Andoain edo Bergararen kasua eta beste mordoak baten». Hori guztia hiru gaztetxoaren ikuspegiarekin kontatzen da. Idaz-



Xabier Mendiguren Elizegi *Elvis hil zen urtean* liburuaren aurkezpenean, Donostian. MADDI SOROA / ARGAZKI PRESS

learen esanetan, gaztetxoak nahiko xaloak, tolesgabeak, idealistak, bihotz handikoak izaten dira eta narratzaileak ere horrelakoxe ikuspegi xamurra dauka.

«Euskaldun eta erdaldunak kopuruz berdintsu diren herri industrializatu gertatzen da istorioa»

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
IDAZLEA

Elvis hil zen urtean 13 urte zituen Xabier Mendiguren Elizegik. Lehen pertsona idatzita eta aitorpen tonua erabilia, bizi izandakoren tankera ematen dio kontaktuari. Badu malenkonia eta nostalgiazko eleberririk, baina ez eren gainetik hausnarketa soziologikoa nagusitzen da. Ez da nerabeak protagonista dituen Mendiguren Elizegiren lehen nobela. *Nerabearen biluzia* idatzi zuen 1999an, autobiografia: «Kasu hartan bere ai-

tortza egin zuen; honetan literatura egiten du», azaldu du Antxine Mendizabal Elkarren editoreak.

AZAL DEIGARRIA. Bularretako zuri bat ageri da eskeigailu batetik zintzilik *Elvis hil zen urtean* liburuaren azalean. Su gainean lehortzen jarria dagoela dirudi. Atzean lauki

formako azuleju berde argiak ageri baitira, garai bateko sukaldeetan jartzen zirenen antzekoak. Lorea Uribe Etxebarriak egindako azala da. «Ez da azal gratuitoa, ez da probokazio hutsa, liburuaren leitu eta gero egin zuen. Liburuko pasarte bat, motibo inportant bat da hor dagoena. Ez dakit irakurtzeko gogoia pizten duen edo ez, baina polita da. Liburuaren gertatzen den garai eta giroa ere erakusten du», azaldu du Mendiguren Elizegik.

Elvis hil zen urtean liburuaren protagonista gazteak diren arren, ez da gazte literaturaren alorreko nobela, baizik eta edozein literatura-zalerentzat egina da. Askok nobela luzeagoa ekiteko asmoa zeukan Mendiguren Elizegik. Euskal Herriaren azken 25 urteetako soziologiaren historia moduko bat egin nahi zuen. Baina konturatu zen liburuak duen tonu nostalgikoa jasanezina egingo zela nobela luze batean. Orduan nobela luzearen ideia albo batera utzi eta ipuin ukietua eman zion idazten ari zenari. «Hori orain dela bost urteko kontua da». Orduetik atera ditu pare bat ipuin liburu, baina ez zitzaizkion egokiak iruditu *Elvis hil zen urtean* sartzeko eta azkenean bere horretan argitaratu du Elkarrek Ateko Bandoan bilduma sortu berriaren barruan.

Giza miseriei egindako narrazioak

A. M.
Donostia

Charles Bukowskiren 21 narrazio argitaratu ditu euskaraz Elkarrek *Satanen seme* liburuan, Mikel Olanok itzultuta. Bi arrazoiengatik erabaki zuen Olanok Bukowskiren narrazioak euskaratzea. Batek, irakurlearen arretari eusteko dohaina daukalako Bukowskik: «Kontaren erritmoa maisuki gobernatzen du eta idazkera jostari eta freskoa darabil. Sekula aspertzin ez duen idazle bakan horietakoa da». Bestetik berriz, AEBetako jende xehearen berri ematen duela modu sinesgarrian: «Munduko kulturarik indartsuenaren gaioak eta miseriak ulertzeko bideak eskaintzen ditu».

Bukowskiren ohiko gaiak ageri dira 21 narrazio hauetan ere: haur-

tzaroko eta gaztaroko pasadizoak, arlo jendearen bizimodua, fabrikako jopuen deshumanizazioa, emakumeekiko harremanak, prostituzioaren lilura, gainbehera doan idazlearen antsietatea, osperearen eta arrakastaren kiratsa... «Bere bizitzako oroitzapenak eta gertatu berri zaizkionak erabiltzea gustatzen zaio, eta betiere pertsonaia arreak marrazten ditu. Darabilen lengoia, berriz, kirats bizigarria darion arnasa erritmikoa da», azaldu du itzultzaileak.

«Idazkera jostari eta freskoa darabil. Sekula aspertzin ez duen idazle bakan horietakoa da»

MIKEL OLANO
ITZULTZAILEA

Aurrez Bukowskiren zenbait poema eta nobela bat ere euskaraz badauden arren, lehen aldiz argitaratu dira euskaraz haren narrazioak. Idazkera antzekoa da guztietan «franko homogeneoa baita Bukowski neurri eta molde guztietan».

Narrazio bilduma hau 70 urte zituela argitaratu zuen Charles Bukowskik *Septuagenarian stew* izenarekin: «Interesgarria da ikustea nola, zahartzaroaren balkoi hartan sartuta ere, idazleak oraindik grazia handiko begiraturak zuen».

Ezerekin konprometitu gabeko idazlea zen Bukowski, politikoki lerrotatu gabea, eta Olanoren esanetan, horixe zen istorioen eta ironia beltzaren gose ziren irakurleek bilatzen zutena.



Multimedia erakusketa
Batekmila-Euskal munduak

Irailaren 19tik azaroaren 17ra



Ganbaran

Ordutegia

Asteartetik larunbatera zabalik
10:30-14:00 - 16:00-20:30



www.gipuzkoa.net/kultura
Urdaneta kalea, 9 | 20006 Donostia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Foral de Gipuzkoa

Euskal Kultur Erakundearekin batera ekoiztua.